


- paralelo
- perpendikular (elkarzut)
- ukitzaile
- ebakitzaile
- ortogonal
- normal
- simetriko
- proportzional
- alderantziz proportzional



Izenondo horiek eta gisa horretako beste batzuek modifikatzailea hartzen dute, eta modifikatzaile horren bidez adierazten da zerekiko gauzatzen den izenondoak adierazten duen nolakotasuna (paralelo, perpendikular, ebakitzaile izatea).

Bi atzizki baliatu ohi dira modifikatzailea izenondoari lotzeko: **-REN** eta **-REKIKO**.

- A B-**ren** paralelo(a) da.
- A B-**rekiko** paralelo(a) da.
- A paralelo(a) da B-**rekiko**. [***** A paralelo(a) da B-**ren**.]
- (...) orbitala **antisimetrikoa** da jatorri**rekiko**.
- Erakarpen-indarra masen biderkadura**rekiko** proportzionala da, eta distantziaren karratu**rekiko** alderantziz proportzionala.

Desegokiak dira, ordea, honako hauek:

- ***** A B-**ri** paralelo(a) da.
- ***** (...) gailurra paralelo zaio fatxada nagusi**ri**...

Adberbio-funtzioan ere erabil daitezke halako izenondoak.

- Ibilgailua errepidearen ardatzarekiko **paralelo(ki)** higitzen da.
- Kiribil bat **perpendikular(ki)** kokatzen da B eremu magnetiko uniforme batekiko.

Izenondoak izen bat modifikatzen badu, erlatibozko perpausa erabiltzea egokiagoa da.

Adibideak

● **ardatzarekiko/ardatzaren perpendikular(ra) den plano**

Desegokiak dira honako hauek:

- ***/# ardatzarekiko plano perpendikularra**
- ***/# ardatzaren plano perpendikularra**

Adibide gehiago

- **errepidearen ardatzarekiko/ardatzaren paralelo(a) den partikularen higidura**
 - **partikulak errepidearen ardatzarekiko/ardatzaren paralelo egiten duen higidura**
-
- ***/#errepidearen ardatzarekiko partikularen higidura paraleloa**
 - ***/#partikularen errepidearen ardatzarekiko higidura paraleloa**
 - ***/#errepidearen ardatzaren partikularen higidura paraleloa**
 - ***/#ardatzaren errepidearen partikularen higidura paraleloa**

Adibide gehiago


● **Simetria-ardatzaren perpendikular(ra) den islapen-plano bat agertzen da.**

- ***/#Simetria-ardatzarekiko islapen-plano perpendikular bat agertzen da.**
- ***/#Simetria-ardatzaren islapen-plano perpendikular bat agertzen da.**

Zenbait testuingurutan
(matematikako eta fisikako
testuetan, esate baterako)
izenondoak adierazten duen
nolakotasuna zerekiko gauzatzen
den ez ezik, non gauzatzen den
ere eman behar da aditzera.

Halakoetan ere egokiagoa da erlatibozko perpausa erabiltzea.

- **C eta B puntuetan kurbarekiko ebakitzailea den zuzena...**
(Zuzenak kurba ebakitzen du C eta B puntuetan.)





Desegokiak dira honako hauek:

- ***kurbarekiko ebakitzailea C eta B puntuetan...**
- ***C eta P puntuetan kurbarekiko ebakitzailea...**

Adibide gehiago:

- **O** puntuan **r** planoarekiko perpendikularra den zuzena...
 - ***r** planorekiko perpendikularra **O** puntuan...
 - ***O** puntuan **r** planorekiko perpendikularra...
- **A** puntuan kurbarekiko ukitzailea den plano...
 - *kurbarekiko plano ukitzailea **A** puntuan...
 - ***A** puntuan **r** kurbarekiko plano ukitzailea...
- **P** puntuan kurbarekiko ukitzailea den zuzena normala da **B** zuzenarekiko.
 - *kurbarekiko ukitzailea **P** puntuan normala da...
 - ***P** puntuan kurbarekiko ukitzailea normala da...



Esapidea oso korapilatsua bada, definizioez balia gaitzke, egitura argitzeko.

- Kurba C eta B puntuetan ebakitzen duen zuzen ebakitzaileria...

Definizioa:

Zuzen ebakitzaileria da kurba bat bi puntutan ebakitzen duen zuzena.

- Kurba A puntuan ukitzen duen plano ukitzaileria...

Definizioa:

Zuzen ukitzaileria da kurba bat puntu batean ukitzen duen zuzena.